

# HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

## AZTERKETARIAREN EGITEKOA: 2 MAILA

### Ahozko azterketa

#### Epaimahaikoen aurrean gin beharreko ariketak

- Aztertzaileen galderak (2/3 minutu)
- 2. ZATIA. Argazkiari buruzko elkarrizketa (3/4 minutu)
- **3. ZATIA. Gaiaren** garapena (egitekoa) (3/4 minutu)

Guztira 10 bat minutu.

#### **Orain prestatu behar duzuna:**

- **Gaiaren** garapena (egitekoa) (3/4 minutu)

#### **Prestatzeko denbora**

**15 minutu** inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Prestatzen amaitzen duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

#### **Amaieran orria eman aztertzaileei**

#### **Gaia: Familia eredu berriak**

### **Familia eredu berriak**

#### **Egitekoa**

Azken urteetan familia eredua aldatu egin da. Bikote motak ere aldatu egin dira, baita legeak ere (sexu berekoen ezkontzak, bakarrik bizi direnak...). Aldaketa horiei buruz hitz egingo duzu eta zure iritzia eman. **Familia eredu berriei buruz** hitz egingo duzu epaimahaikoen aurrean, 3/4 minututan.

#### **Zehatzago**

Azaldu zein diren azken urteetako aldaketarik handienak familia ereduetan (sexu berekoen ezkontzak, bakarrik bizi direnak, haur atzerritarrak etxean hartzea ...). Legeak ekarri dituen aldaketak. Gizartearen iritzia zein den. Aldaketa horien alde edo kontra egoteko arrazoiak. Konparatu beste leku batzuetan bizi den egoerarekin edo beste garai batzuetan zegoenarekin.

Gaiarekin lotutako albiste hauek argitaratu dira egunkari batean:

**"Hamar urtean %77 handitu da bakarrik bizi direnen kopurua".  
"Belgikako Senatuak sexu bereko bikoteek haurrak adoptatzea onartu du".**

Gogoratu 3/4 minutuz hitz egin beharko duzula.

#### **2. zatirako edozein argazki erakutsi 4. argazkia izan ezik**

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN

Azterketa deialdia: **2006ko ekaina**



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna  
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

# HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

**AZTERKETARIAREN EGITEKOA: 2 MAILA**

## Ahozko azterketa

### Epaimahaikoen aurrean gin beharreko ariketak

- Aztertzaileen galderak (2/3 minutu)
- 2. ZATIA. Argazkiari buruzko elkarrizketa (3/4 minutu)
- **3. ZATIA. Gaiaren** garapena (egitekoa) (3/4 minutu)

Guztira 10 bat minutu.

### **Orain prestatu behar duzuna:**

- **Gaiaren** garapena (egitekoa) (3/4 minutu)

### **Prestatzeko denbora**

**15 minutu** inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Prestatzen amaitzen duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

### **Amaieran orria eman aztertzaileei**

**Gaia: Zahartzaroa gaur egun**

### **Zahartzaroa gaur egun**

#### **Egitekoa**

Gaur egun zahartzaroa gero eta luzeagoa da. Nola bizi dira gaurko aitona-amonak? Zer aldatu da haien bizimoduan? Gau egungo hirugarren adinekoei buruz eta **zahartzaroz** duzun iritzia azalduko diezu aztertzaileei, 3/4 minututan.

#### **Zehatzago**

Azaldu gaurko zaharren bizimodua, zertan aldatu den eta konparatu lehengo bizimoduarekin, zein diren abantailak edo desabantailak. Zer aldatu den, zer hobetu daitekeen.

Esan, zure ustez, non bizi diren hobeto aitona-amonak: bakarrik, zahar-etxeetan, seme-alaben etxean....

Gaiarekin lotutako albiste hau argitaratu da egunkari batean:

***"Gipuzkoako zahar etxeetan leku berezia egingo diete aitona-amonei udako hilabeteetan."***

Gogoratu 3/4 minutuz hitz egin beharko duzula.

**2. zatirako edozein argazki erakutsi 5. argazkia izan ezik**

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN

Azterketa deialdia: **2006ko ekaina**

# HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

## AZTERKETARIAREN EGITEKOA: 2 MAILA

### Ahozko azterketa

#### Epaimahaikoen aurrean gin beharreko ariketak

- Aztertzaileen galderak (2/3 minutu)
- 2. ZATIA. Argazkiari buruzko elkarrizketa (3/4 minutu)
- **3. ZATIA. Gaiaren** garapena (egitekoa) (3/4 minutu)

Guztira 10 bat minutu.

#### **Orain prestatu behar duzuna:**

- **Gaiaren** garapena (egitekoa) (3/4 minutu)

#### **Prestatzeko denbora**

**15 minutu** inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Prestatzen amaitzen duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

#### **Amaieran orria eman aztertzaileei**

.....  
**Gaia: Lana, estresa, gaurko bizimodua...**

#### **Lana, estresa, gaurko bizimodua...**

##### **Egitekoa**

Gaur egun lanpetuak eta estresatuak bizi garela esaten da. Zergatik? Dena egin nahi dugu? Egunak, asteak... motz geratzen zaizkigu? Gaurko **bizimodu estresatuaz** hitz egingo duzu epaimahaikoen aurrean, 3/4 minutu.

##### **Zehatzago**

Azaldu nola bizi garen gaur egin, zergatik gauden estresak jota, zer egin beharko genukeen hobeto bizitzeko. Oraingo bizimodua eta lehengoa konparatu eta ondorioak atera.

Proposatu erremedioak eta gomendioak eman lasaiago bizitzeko.

Gaiarekin lotutako albiste hauek argitaratu dira egunkari batean:

**"Yoga aukera egokia izan daiteke estresari aurre egiteko.**

**"Estresa, giharretako mina eta ahotseko arazoak izan ohi dira irakasleen gaitzak".**

Gogoratu 3/4 minutuz hitz egin beharko duzula.

#### **2. zatirako edozein argazki erakutsi 6. argazkia izan ezik**

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN